



 FARAPI KOOP.

# 2022 TXOS TENA

### TXOSTEN HONETAN TOPATUKO DUZUNA:

Izaera

Proiektuak

Kontuak

Hornitzaileak

Sareak

Ingurumena

2019an, Farapiren lan-egitura hankaz gora jarri genuen eta, ordutik, etengabeko eraldaketa prozesu batean gaude murgilduta. Gerentzia eredu tradizionala ezabatu genuen eta lan-taldeka antolatzen hasi ginen, lan-orduak murriztu genituen eta taldearen eta norbanakoen bizigarritasuna bermatzeko tresna eta mekanismoak sortzen hasi ginen.

Hiru urteren ondoren, **2022. urtea egonkortze urtea izan da Farapirentzat**. Bizigarritasuna eta bideragarritasuna uztartzeko bidea ez da erraza izan, baina aurreko urteko emaitzek erakutsi digute posible dela.

Bost dimentsio kontuan hartuta ari gara gauzatzen eraldaketa: proiektua, taldea, pertsona, inguru naturala eta inguru soziala. 2022 urtearen azterketa hau, beraz, erantzunkidetasun sozialetik egiten dugu, gure pertsonatik, taldetik eta proiektutik harago bagarelako eta izan nahi dugulako.

**Erabaki politikoa da zurekin gardentasunez partekatzea norekin egiten dugun lan, nondik jasotzen ditugun gure baliabide ekonomikoak eta zertan erabiltzen ditugun.**

Txosten hau egin ahala, urteko ibilbidearen aitortza egiteko aukera ere izan dugu. Harro gaude 2022an egindako lanaz, nahiz eta oraindik hobetzeko marjina dugula jakin badakigun. Horrek indarra eman digu eredu bizigarriarekin jarraitzeko eta erronka berriei aurre egiteko.

**Ongi etorri gure erraietara.**

# IZA ERRA

**Enpresa ameslaria da Farapi.** Sistema kapitalista patriarkal eta kolonialista baten baitan lan egiten dugun arren, etengabe ari gara eredu berriak ko-sortzeko saiakerak egiten.

**Gure izaera zurruna eta aldakorra da aldi berean.** Alde batetik, oinarri batzuk negoziatzeko direla uste dugu. Besteak beste, hierarkiarik gabe lan egiten dugu eta produktiboak ez diren lanei aitortza egiten diegu.

Bestetik, ingurura begiratzea gustuko dugu, gure erabakiak berrikusteko eta elkarren artean ikasten eta desikasten jarraitzeko.

Pixkanaka, sistema zapaltzaile eta bortitz honetan alternatibak sortzeko sareak ehuntzen ari gara elkarrekin. Horrenbeste lagun zarete lan nekazina egiten duzuenak utopia egia bilakatzen saiatzeko!

**Eskerrik asko inspirazio izateagatik.**

## ALDAKETAK LANTALDEAN

Lantaldean aldaketak izan genituen 2022. urtean. June Bartzelonara joan zen bizitzera eta bihotza uzkurtuta esan genion agur apirilean. Aldi berean, komunikazioa bultzatzearen aldeko apustua egin genuen eta taldekide berria kontratatzea erabaki genuen. Horren ondorioz, maiatzean Oihane sartu zen lantaldean.

Beraz, joan-etorriak egon badira ere, langile zenbakia mantendu dugu eta hamar *farapitar* izaten jarraitzen dugu: **Araitz, Gabriela, Haizea, Irati, Leire, Maider, Maria, Nerea, Nicola eta Oihane.**

Proiektuak garatzeko ezinbestekoa ikusten dugu jakintza eta arlo ezberdinetatik datozen begiradak eta egiteko moduak baliatzea. Horregatik, Farapi osatzen dugunok diziplina anitzetatik gatoz: feminismoa, partaidetza, ekonomia sozial eraldatzailea, antropologia, administrazioa, finantzak eta komunikazioa.




# PROIEKTUAK

Urte oparoa izan da eta, osotara, **81 proiektutan egon gara murgilduta 2022an zehar.**


Farapin modu kontzientean erabakitzen dugu zein proiektutan parte hartu nahi dugun. Proposamenak baloratzeko tresna bat sortu dugu, eta horrek gure izaerarekin koherenteak diren irizpideen arabera erabakiak hartzeko aukera ematen digu. Proiektu batean sartu baino lehen, alderdi hauek aztertzen ditugu: bideragarritasuna, motibazioa, kontziliazioa, bizigarritasuna eta beste hainbat.

**Gure proiektuak hiru lan-lerrotan sailkatzen ditugu:** feminismoa, partaidetza eta ekonomia sozial eraldatzailea. Hala ere, gure eguneroko lanean etengabe gurutzatzen dira, batak bestetik edaten duelako.

**Hona hemen 2022 urtean egindako proiektu kopurua, lan-lerrotan sailkatuta:**



## PROIEKTUAK LAN-LERROKA



Feminismoa

### Zaintza:

**Bergarako** zaintza ekintza-planaren diseinurako prozesu partehartzailea.

**Zegamako** zaintza mapa - Zahartzaroa.

### Indarkeria matxista:

**Saiaz Mankomunitatean** indarkeria matxista lantzeko saioak.

**Zizurkilgo** eragileekin indarkeria matxista lantzeko saioak.

**Zegaman** indarkeria sexistari tokiko erantzun bateratua adosteko prozesu partehartzailea.

**Bideberri Mankomunitatean** gazteekin indarkeria matxistaren prebentzioa lantzeko prozesu partehartzailea.

### Jai Berdinzaleak:

**Tolosako** jaien berdintasun behatokiaren dinamizazioa.

**Lazkaon** jaietan indarkeriari aurre egiteko prozesu partehartzailea.

### Emakumeen etxeak:

**Oñatiko** emakumeen etxea eratzeko prozesu partehartzailea.

**Zumaiako** zaintza jardunaldietan talde-hausnarketarako dinamizazioa.

### Enpresetan berdintasuna:

Euskal Herriko **Bertsozale Elkarte**ko I. Berdintasun Plana.

**EAEko Euskaltegietan** genero-berdintasunaren inguruko diagnostikoa.

**HABEren** II. Berdintasun Plana osatzeko laguntza tekniko eta dinamizazioa.

**Hautzaro Ikastolako** Berdintasun Plana.

**Errigora:** Berdintasun Haziak lan-prozesua.

### Farapik bultzatutako prozesuak:

**Kooperatibismo** feministara hurbilpena.

**Farapiren lan-eredua** bizigarri bilakatzeko prozesua.

### Bestelako prozesuak:

**Beasainen** berdintasun kontseilua sortzeko prozesu partehartzailea.

**Irurako** emakumeen memoria historikoa ezagutarazteko prozesu partehartzailea.

**Sexualitatea eta maitasun erromantikoa** deseraikitzeari buruzko mintegiak EHU.

## Ekonomia sozial eraldatzailea

### Lantokiak eraldatzeko tresnak:

**Arremanitz** Kooperatiba.

**BIRA** Kooperatiba.

**Bideragarritasuna** eta **bizigarritasuna** uztatzeko tresnak **BIRA** Kooperatiban.

**Eihera** Kooperatiba.

**Harago** Aholkularitza.

### Barne-prozesuak enpresetan:

**Berria** egunkarian barne-prozesu partehartzailea.

**Talleres Mitxelena** erantzunkidetasun soziala eta parte-hartzea sendotzeko prozesua.

**BST RODS** enpresan erantzunkidetasun soziala lantzeko prozesua.

**Goiener** Kooperatibaren erronkak eta aukera aztertze prozesu partehartzailea.

**Loreka** Aholkularitzan erantzunkidetasun soziala lantzeko prozesua.

**EGAN.** **Goiener** kooperatibako plangintza estrategikoa lantzeko aholkularitza zerbitzua.

### Erakide tresnaren aplikazioa:

**Sutargi S.A.L.**

**Isladak** Koop. Elk. Txikia.

**Euskal Editoreak S.L. (Berria Taldea).**

### Saretzea:

**KoopFabrikako** 2021-2022 programan bidelaguntzaile.

**Talde-kudeaketarako** gakoan inguruko formazioa **KoopFabrikan**.

**KoopFabrikako** 2021-2022 programan formazio-saioak, **Talaios Kooperatibarekin** elkarlanean.

**GU Pirinioak** jardunaldien dinamizazioa.

**Ehunduren** plangintza estrategikoa osatzeko bidelaguntza prozesua.

### Elkarlana:

**Enpresa sare** erantzunkide eta jasangarriak eraikitze elkarlan prozesua, **Emun, Aztiker, Elhuyar** eta **Isladak** aholkularitzekin elkarlanean.

**ERAKIDE** tresna Gipuzkoako enpresetan hedatzeko elkarlan prozesua, **Emun Aztiker, Elhuyar** eta **Isladak**ekin elkarlanean.

**Urola Garaian** ekosistema kooperatiboak sustatzeko prozesua, **UGGASA** eta **Biziola sarearekin** elkarlanean.

**Biziola** komunitatearen eraldaketa eta dinamizazio lanak.

**Teila Fabrika** balio eta prozesu eraldatzaileen etxea bilakatzeko prozesua.

## Parte-hartzea

### Haur eta nerabeak:

**Irungo** haur eta nerabeen partehartzea dinamizatzeko laguntza tekniko.

**Oreretako** gazte foroa sortzeko eguneraketa eta aukeren azterketa.

**Donostiako Ekialde Barrutiko** haur eta nerabeen partehartze foroan diseinurako lan-prozesua.

### Energia komunitateak:

**Oreretan** energia berriztagarrien komunitatea sortzeko

partaidetzako prozesua, **Goienerrekin** elkarlanean.

### Udalerrietan bidelaguntza:

**Pasaia**ko elkarteak haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko planean artikulatzeko prozesua.

'**Legazpi** garbi mantendu' prozesu partehartzailea herritarrekin.

'Pandemian bizi': **Ordizian** COVID garaiko narratiben jasoketa.

### Elkarteetan bidelaguntza

**Ikastolen** endekalogoia aberastu eta barneratzeko partaidetza prozesua.

**Arrano Kultur Elkarte**a birpentsatzen.

**Hautzaro Ikastolako** guraso komunitatearen partehartzerako eta ahaldunderako formazioa.

**Uliako Lore Baratza**k elkartearen barne-antolaketari eta partaidetzari buruz hausnartzeko prozesua.

**Arantzadi Ikastolako** irakasle taldean partaidetza sustatzeko prozesua.

### Enpresetan bidelaguntza

**Arremanitz Kooperatibako** lantaldeari haur eta nerabeekin partehartze prozesuak egiteko trebakuntza.

**Juntura Kooperatiban** produktiotik haragoko eremuen inguruko barne-prozesua.

### Farapik bultzatutako ekimenak:

Arantzazulab '**Galdera ikurrak**'.

### Saretzea:

**OlatuKoop** sarean interkooperazioa sustatzeko prozesua.

## GURE KABUZ BULTZATUTAKO PROIEKTUAK

Farapin sinesten dugu gu ere gizartea eraldatzeko eragile aktibo izan gaitzkeela. Hori dela eta, eskaerapeko lanak egiteaz gain, geure kabuz proiektuak sustatu ditugu ere 2022an zehar.



### 'Galdera ikurrak'

Zer da ongizatea nerabeentzat? Zer egin dezakete erakundeek eta gizarteak hori bermatzeko? Galdera horiek landu nahi genituen gazteekin prozesu parte-hartzaile baten bitartez. [Arantzazulabek](#) sustatutako [Ko-Sorkuntza Ekosistema](#) lehiaketari esker, 'Galdera ikurrak' proiektua abiatu genuen Tabakalerako [Medialab](#) espazioarekin elkarlanean.

Prozesu horretan zehar, Donostia, Lasarte eta Irungo nerabe-taldeekin ongizatea landu genuen. Gaiaren inguruan hausnartzeko, sormenaz baliatu ginen eta partaideek argazkiak, collage-ak, fanzineak eta bideo-jolasak egin zituzten.

Haien ongizatea oztopatzen duten gaien artean, arrazakeria, bakardadea edota genero ezberdinkeria aipatu zituzten nerabeek, besteak beste. Egindako hausnarketa prozesua barne-mailan gera ez zedin, urriaren 25ean dialogo saio bat antolatu genuen Tabakaleran erakunde publiko, sozial eta bestelakoekin, gazteek zuzenean ordezkari politiko eta sozialekin hitz egin zezaten.

## Kooperatibismo feministara hurbilpena

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren diru-laguntza bati esker, Gipuzkoako kooperatibismo feministari buruz ikertu dugu 2022. urtean. Gero eta proiektu kooperatibo gehiago genituen inguruan emakumez osatuak eta emakumeen lidergoarekin, parte hartzearekin... eta ezagutu nahi genuen proiektu horietan zenbateraino zegoen presente feminismoa eta proiektu horietatik nola eragiten ari ginen ekonomian, feminismoan eta orokorrean.

Ikerketa elikatzeko hausnarketa partekatu bat sustatu nahi izan genuen eta kooperatiba ezberdinen ahotsak islatu. Horregatik, banakako elkarrizketak egiteaz gain, 2022ko urriaren 20an, Kooperatibismo Feminista Topaketa antolatu genuen **Biziola** Fabrikan, Lazkaon. Kooperatiba gipuzkoar eta euskaldunetako 50 emakume baino gehiagok parte hartu zuten topaketan.



## Farapiren lan-eredua bizigarri bilakatzeko barne-prozesua

Gure lan-eredua eraldatzen jarraitzeko asmoz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren beste diru-laguntza bati esker ordura arte egindako lana egonkortu eta sistematizatu genuen 2022an. **Oreka Sarearen** bidelaguntzarekin, sortutako tresnak berrikusi genituen eta bizigarritasuna bermatzeko tresna-sortak egin genituen.

Bilketa-prozesu horren ondoren, gure helburua beste enpresa batzuk laguntzea da haien barne-egiturak irauli eta bestelako lan-ereduak bultzatzeko.





# KON- TUTUAK

Farapin bizigarritasuna bezain garrantzitsua da proiektuaren bideragarritasuna, azken horrek lehenengoa bermatzen duelako. Hurrengo orrialdeetan, baliabide ekonomikoak nondik eskuratzen dugun eta zertarako erabiltzen dugun ezagutu ahal izango duzue.


Lanaldiak berregituratzeak ziurgabetasun momentuak eragin dizkigu. Hala ere, harro gaude urte-ekonomikoa itxi dugulako, nahiz eta ordu produktiboak murriztu ditugun.

Gaur egun, horrela dugu egituratuta lanaldia: sei ordu inbertitzen dugu kooperatibaren lan produktibo eta erreproduktiboan; ordubete dugu atsedenerako eta talde-kohesiorako; eta beste ordu bat libre uzten dugu bakoitzaren bizitza pertsonal, sozial eta politikorako.


## DIRU-SARRERAK

2022. urteko diru-sarrerak osotara: **426.953,07 €**


### Nola finantzatzen ditugu proiektuak?



### Bezero motak:




### Enpresa motak:



## GASTUAK

2022. urteko gastuak osotara: **426.271,49 €**

### Zertan inbertitu dugu?



\* 2022 urteko IPDK Donostiako Harrera Sareari dohaintza egiteko erabili dugu.

## Soldata-taula:

### Urteko soldata (2022)

Kooperatibakide diren langileak	32.034,09 €
Kooperatibakide ez diren langileak (>1 urte)	30.826,25 €
Kooperatibakide ez diren langileak (<1 urte)	28.872,06 €






Urte amaieran ezer elkarbanatzeko egotekotan, langile guztion artean partekatzen ditugu, kooperatibakide izan ala ez.


# HOR NITZAZA ILEAK

Urteak daramatzagu koherentzia ariketa egiten eta pixkanaka gure hornitzaileak aldatzen.

Hauek dira, besteak beste, aldaketak egiteko erabili ditugun irizpideetako batzuk: ekonomia sozial eraldatzaileko (ESE) enpresa izatea, tokikoa izatea, finantza etikoak bultzatzea edota zerbitzua euskaraz jaso ahal izatea.

Ondorengo taulan orain arte egin dugun trantsizioa islatu dugu:

	LEHEN	ORAIN
Ostatatzea eta e-posta	Telefónica / Acens	IZT Koop   
Inprimagailu zerbitzuak	RICOH	MAKELSA  
Telefonoa	Vodafone	Osinaga  
Janari erosketak	Eroski	Labore   
Mailegua	Santander	Koop57    
Bestelako erosketak	Denetariko denda	Tokiko dendak 
Elektrizitatea	Iberdrola	Goiener   
Aseguru etxea	Catalana Occidente	Nortlan   
Garbiketa zerbitzuak	Easo Limpiezas 	Maitelan   
Mutua	Previncilan / Preving	Segurlan  

 ESE     Finantza etikoak     Tokikoa     Euskaraz

Kriterio horiek betetzetik haratago, eragiteko jarrera proaktiboa dugu Farapin; kontua ez da laukiak markatzea bakarrik. Urtetik urtera, elkarrekin erantzunkidetasun sozialaren balioak sustatzeko erronkan gabiltza.

Aldi berean, hornitzaileekin harremantzeko moduari ere garrantzia ematen diogu. Bezeroekin egiten dugun bezalaxe, gertutasunetik lan egitea gustuko dugu, bezero-hornitzaile harreman tradizionalak irauliz.

**Bide luzea egin dugu, baina oraindik ere eutsi beharreko erronkak ditugu.** Kontziente gara, esaterako, teknologia burujabetza eta software librearen erabileran murgiltzen hasteko beharra dugula.



# SARB EAKK

Saretzea ezinbestekoa dela uste dugu, inguru sozialarekin kohesioa eta konexioa izateko.

**Gizartea eraldatu nahi badugu, ezin dugu bakarrik egin.** Horregatik, beste elkarte, enpresa eta eragileekin elkarlanean aritzen gara eta partekatze-espazioak sortzearen alde egiten dugu.

Elkar sostengatzen dugun proiektuak gara. Horregatik, 2022 urtean hainbat berme mankomunatuetan parte hartu dugu beste proiektuak laguntzeko, guri haiek lagundu diguten moduan.

Gaur egun, hainbat espazio kolektibotan parte hartzen dugu.

## ZEIN SAREETAN GAUDE?

### Olatukoop

Ekonomia sozial eraldatzailea indartzeko eragileen sareko **partaide aktiboak** gara.

### Larrutik

Kooperatiba feministen interkooperazio espazioko **partaide** gara.

### Batura mapa

Ekonomia Sozial Eraldatzailearen Euskal Herriko **mapan gaude**.

### Koop57

Zerbitzu finantzario etikoak eta solidarioak eskaintzen dituen kooperatiba honetan **bazkide** gara.

Cure hornitzaile izateaz gain, **Maitelan** garbiketa kooperatibaren eta **Labore** supermerkatu kooperatiboaren **bazkide** gara.

### KoopFabrika

Ekintzaitza sozial kooperatiboan oinarrituz, proiektu profesional eta ekimen sozio-ekonomikoak martxan jartzen laguntzeko eskola honetan **bidelagun** gara.

### Biziola sarea

Goierriko herritarrak, ekonomia sozial eraldatzaileko eragileak eta bestelako erakundeak saretu nahi dituen irabazi asmorik gabeko eta gizarte ekimeneko kooperatiba honen **bazkide** gara.

### Ko-sorkuntza ekosistema

Arantzazulabek sustatutako lankidetzaz-egiturako **kide** gara. Bertan, partaidetzan lan egiten dugun askotariko eragileak kontaktatzen gara eta ezautza berriak garatzen ditugu taldean.



# INGURU URRU MENA

Aipatu dugun bezala, Farapiren lanaren dimentsioetako bat inguru naturala da. Alabaina, onartu beharra daukagu asko dugula lantzeke alor honetan.

Aurrerapauso txikiak eman baditugu ere, farapitarron artean kontzientzia ekologikoa garatzeko lan sakona egin behar dugu. Farapik ingurumenaren duen inpaktua neurtzeko tresnak garatzea eta horren araberako neurriak hartzea, zalantzarik gabe, gainditu beharreko ikasgaia da guretzat.

## BAI

## BAINA

<b>Garraio publikoaren erabilera saritzen dugu (gastuak kubritzen ditugu).</b>	Ez dugu gure desplazamenduek duten inpaktua neurtzen.
<b>Ahal den neurrian, kotxea partekatzen dugu saioetara joateko.</b>	Erabaki horretan ikuspegi ekonomikoaren pisua ukaezina da.
<b>Goiener da gure argindarraren hornitzailea.</b>	Ez dugu neurtzen argindarraren kontsumoa eta, egin izan dugunean, ikuspegi ekonomikotik egin dugu.
<b>Materialak berrerabiltzen ditugu eta paper birziklatua erabiltzen dugu.</b>	

Oro har, ingurumenaren mesedetan egiten ditugun gauzak ikuspegi ekonomikotik arrazoitzen ditugu kontzientzia ekologikotik baino. **Egoera horretaz jabetzea eta esku hartzea da eman behar dugun lehenengo aurrerapausoa.**





**Eskerrik asko 2022an gurekin  
bidea egin duzuen guztiei.**

Gure lanaren berri izan nahi baduzu,  
sar zaitetz gure webgunean  
eta jarrai gaitzazu sare sozialetan:



@farapikoop

[www.farapi.com](http://www.farapi.com)